



Etxarri Aranazko Udala

LAN ISTRIPUEN AURREAN ETXARRI ARANAZKO UDALEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Etxarri Aranazko Udalak bere elkartasuna eta atsekabea adierazi nahi die, gaur, azaroaren 28an, Etxarri Aranazko Omnia enpresan lan istripua izan eta hildako Miguel Granizoren familia, lagun, lankide eta gainerako gertukoei. Era berean, lan istripuak behin betiko desagerrarazteko hartu beharreko neurriak har daitezten aldarrikatu eta nondik norakoak argi ditzan eskatzen dio Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.

Etxarri Aranazko Udalak lan segurtasuna bermatu eta lan istripuak behin betiko desagerraraztea ezinbestekoa dela adierazi nahi du. Helburu hau lortzeko, behar-beharrezkoa da egungo lan osasun eta segurtasunean aurrerapauso nabarmenak ematea zein langile guztien, eta batik bat egoera bereziki zaurgarrian daudenen, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudia zehatz-mehatz eta irmoki betearaztea.

Hori guztia dela eta, Etxarri Aranazko Udalak deia luzatzen die eragile guztiei administrazioa, erakunde sindikalak eta patronalarekin batera lan arriskuen prebentzioaren aldeko praktika onen jarrera izan eta bultza dezaten. Gainera, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudia hitzez hitz eta zehatz-mehatz betetzen ez dutenen eta lan eremuko osasun eta segurtasun neurriak betetzen ez dituztenen salaketa ere egiten du lan eremuko ikuskaritzan hobekuntzak eskatuz.

Etxarri Aranazko Udalak, bestalde, lan istripu hau deitoratzeko helburua duten ekimen eta adierazpenekin bat egiten du.

Etxarri Aranazko, 2023ko azaroaren 28an.